

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2025eko urriak 10 · 1369 zenbakia



DENONTZAKO TOKIRIK EZ

AZKEN EGUNAK

**PROGRESIBOEN
HILABETEA**

2MÓ 199€

batzuk eguzkitakoak
izan daitezke

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



RPS 93/25

MULTIÓPTICAS

943 20 05 22


Bidebarrieta, 2. EIBAR



hitzordua eskatu

www.multioplicas.com





• **ARRATE HOMES** •

Eibarko zure etxebizitza berriak

SARIA DU!



Orain bakarrik, Arrate Homes-en zure etxebizitza berria eskuratuz gero,

▶ **3.000€**-ko

El Corte Inglés-eko opari-hartela emango dizugu

*ELKARREKIN ONARTU JAZTEKOAK

Obra berriko etxebizitzak:

Gimnasioa • Gourmet aretoa • Garajea • Trastelekua



900 11 00 22 • neinorhomes.com

EZ GERATU GIDATIK KANPO!



688 62 15 35

publizitatea@etakitto.eus

Jarraitu gaitzazu!

BIDEOAK YouTubean ikusgai



Jarraitu aktualitatea gure webgunean eta sare sozialetan



Gabriel Aresti mito bat da Pedro Alberdi idazle eibartarrarentzat. Horregatik, orain dela 25 urte inguru mitoa Eibarren bizi izan zela jakin zuenean, 'Gabriel Aresti Eibarren' ipuina idatzi zuen. Orain, Kandido Uranga eta Inazio Tolosa aktoreek ipuin hori hartu dute ardatz 'Gabriel Arestirekin' antzezlanaren sortzeko, eta Coliseo antzokian eskainiko dute, urriaren 24an, 19:00etan. Bideo hau eta beste asko ...eta kitto!-ren YouTubeko kanalean ikus daitezke.

www.etakitto.eus

eta kitto!
euskara elkarteak



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarteak

HELBIDEA

Urkizu, 11 - 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

aldizkaria@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Irati Alvarez, Ekhi

Belar, Ander Fernandez, Irune

Jaio, Silbia Hernandez eta Yanire

Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Irune Jaio

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALA

Irune Jaio

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



Eskutitzak



Genozidioarekin negoziarik ez. Langileok Palestinarekin!

LAB, CCOO, UGT, ESK, STEILAS, CGT, Etxalde eta HIRU sindikatuek iragan astean Lanuzte Orokorreko deialdia iragarri zuten urriaren 15erako Hego Euskal Herrian. Borroka, mobilizazio eta batzarren eguna izango da 15ekoa, langile klase osoaren parte hartze aktiboa bilatuko duena.

Lanuzte orokorra 03:00etatik 06:00etara, 11:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 22:00etara izango da, eta mobilizazio nagusiak 11:00etatik 14:00etarako tarte horretan izango dira. Manifestazioak izango dira Bilbo, Gasteiz, Donostia eta Iruñeako kaleetan.

- Palestinako herriari langile klase osoaren elkartasuna adieraziko diegu.
- Israel, Ameriketako Estatu Batuetako Gobernuaren babesarekin, Palestinako herriaren aurka egiten ari den genozidioa eta gizateriaren kontrako krimenak salatuko ditugu.
- Zisjordanian Palestinako lurraldearen etengabeko kolonizazioa eta horrek Palestinako langile klasearen lan eta bizi-baldintzetan dituen ondorio larriak salatuko ditugu.
- Gazan genozidioaren berehalako amaiera exijituko dugu, eta okupazioari nahiz kolonizazioari bukaera emango dion konponbide integral bat eskatuko, Palestinako herriak askatasunean bizitzeko duen eskubidea bermatuz.
- Patronalari eta instituzio propio nahiz nazioartekoei Israelgo Estatuarekiko harreman komertzial oro eten dezatela exijituko diegu. Ez da posible genozidio baten kontura negozioa egiten jarraitzea.
- Europako Batasunaren eta Israelen arteko Elkartzeko Hitzarmena bere osotasunean eten dezaten eskatuko diegu.

Bestalde, urriaren 15erako Gernika-Palestinak mobilizazioak deituak ditu iluntzean, Hego Euskal Herriko herrietan, 19:30ean, eta lanuzte orokorraren deitzaile diren sindikatuek bat egingo dute mobilizazio horiekin eta Palestinarekin elkartasunez antola litezkeen gainerako mobilizazioekin.

LAB, CCOO, UGT, ESK, STEILAS, CGT/LKN,
Solidari, Etxalde eta Hiru sindikatuak.

Hortik esanak



Animaliei buruzko ikuspegia aldatu da, eta orain ongizate emozional eta psikologikoa sustatzeko baliagarri ere ikusten ditugu. Familia ereduak aldatu dira, eta jende askok uste du animaliek, emozioen arloan, gizakiek eskaintzen duten guztia edo ia guztia eskain dezaketela. Familia egiturak txikitu egin dira, guraso bakarreko familiak eta bakarrik bizi diren pertsonak ugaltu dira, gizartea zahartu da, eta bakardade sentimendu horri aurre egiteko modu gisa ikusten dira animaliak, eta, aldi berean, babes emozionalerako iturri gisa. Askotan interdependentzia harreman bat sortzen da txakurraren eta jabearen artean: zuk arretea ematen diozu animalia, berak konpainia ematen dizu, egunerokoan errutina batzuk sortzen dira, ardura sentimendu bat ere, bizirik dagoen izaki bat zaintzen ari zarela... Horrek guztiak izugarritzko inpaktua du ongizate emozionallean.

Aitor Aritzeta Galan, psikologoa

Ekainaz geroztik ez dut aplikaziorik erabili. Egia esan, idazle bezala armairutik atera nintzenetik askoz gehiago ligatzen dut, espero ez nuen zerbait. Harreratik gaindituta nago, eta aplikazioen hiperkonexio-ameskeriatik irteteko beharra sentitzen dut; izan ere, pertsonen deskonexioa da, Tinderrek ez baitizu lotura iraunkorrak ezartzen laguntzen. Itsasoa beti arrain gehiago egoten denez, zerbait hobearen bila zabilta, eta horrek harremanak finkatzea eragozten du nolabait. Kritika askok diote kontsumismo modu bat gehiago dela, baina, berez, kontsumitzen duguna baino gehiago kontsumitzen dugu geure burua. Gure nortasuna baliozkotzea bilatzen dugu, ez harremanak, eta gizabanako gisa dugun identitatearen ainguratzea ematen diguna. Aldi berean, behar hori mekanismo ia ludopaten bidez indartzen duten aplikazioekin egiten dugu topo.

Inma Benedito, Idazlea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PIPARRA BAIÑO ZITTALAGUA IZAN → Konparazioa. Oso zitala, txarra izan. Gaztelerazko parekidea 'Ser más agrio que el vinagre'. "Piparra baiño zittalagua zan gure maixua".

PIPARRA EGONI → Norbait haserre egon. Gaztelerazko 'displicente, de mal humor'. "Inoiz baino piparragua etorri da gaur entrenatzaila".



Idurre Iriondo

Farmaziak

BARIXAKUA 10
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
ZAPATUA 11
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
DOMEKA 12
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
ASTELEHENA 13
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
MARTITZENA 14
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
EGUAZTENA 15
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
EGUENA 16
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
BARIXAKUA 17
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI, 2025ean,
Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Manu Sampayo Fariñas**. 62 urte. 2025-X-02.
- **Jesus Mari Ugalde Solozabal**. 63 urte. 2025-X-04.
- **Ane Juez Zubiaurre**. 63 urte. 2025-X-06.
- **Mari Carmen Zubia Aranzabal**. 97 urte. 2025-X-07.
- **Mari Luz Moreno Diez**. 95 urte. 2025-X-07.
- **Antonio Yeregui Aranalde**. 90 urte. 2025-X-08.



Elkartasun flotillaren kontrako eraso salatzeko ekimenak nonahi

Aurreko astean Israeliek Global Sumud flotilla erasotu zuela eta, horren aurkako ekimen ugari egin ziren mundu osoan zehar, baita Eibarren ere. Ehundaka herritar Untzagan elkartu zituen arratsaldeko kontzentrazioaz gain, ikastetxe

askotan ere elkarretaratzeak eta bestelako ekintzak egin zituzten, gertatutako gaitzesteko.

Goiko argazkian, Arrateko Andra Mari ikastetxeko ikasle, irakasle eta gurasoek egindako elkarretaratzea.



Arraten jarritako txosnan bildutako dirua Afagi elkarteari eman dio EAJ-PNVk

Alzheimer gaixoak eta senideak laguntzea helburu duen Afagi Gipuzkoa elkarteari eman dio EAJ-PNVk Arrate egunean txosnan jasotako dirua. Aste honetan egin diote dohaintza Iñaki Olalde elkarte

presidenteari. Eva Juez Eibarko UBBko presidenteak azaldu duenez, “elkarte honek egiten duen lana oso handia da, eta guztion artean laguntzeko ahal duguna egin behar dela uste dugu”.

Eibar Palestinarekin deituta, manifestazioa egingo da domekan

Israeliek Gazan erasoaldia hasi zuenetik bi urte beteko direnean, Eibar Palestinarekin plataformak mobilizazioa deitu du domekarako (urriak 12), eguerdiko hamabietan Untzagan. Manifestazioaren lemak “Palestina Askatu” eta “Genozidioa Gelditu” lizango dira, eta Untzagatik hasiko da. Hainbat eragile sozial eta sindikalek ere babesa agertu diote ekimenari.

Gazako Osasun Ministerioaren arabera, 67.000 palestinar baino gehiago hil eta 170.000 inguru zauritu dira gutxienez erasoaldia hasi zenetik. Hildakoen artean, gutxienez %30 haurrak dira. Palestinar lurraldea ia osorik suntsitu dute eta osasun sistema ia erabat kolapsatuta dago.



Azaroaren 6an egingo dute jaia 1947an jaiotakoek

1947an jaiotakoek azaroaren 6an (eguna) ospatuko dute beraien jaia. Piskolabisa eta bazkaria Arkupe tabernan izango dira, eta bazkaldu aurretik zerbait edateko tartea egongo da. Joan nahi dutenek 75 euro sartu beharko dituzte Rural Kutxako kontu honetan: ES36 3008 0171 6452 1919 8628. Dirua sartzerakoan izen-abizenak argi adierazteko eskatu dute antolatzaileek. Izena emateko azken eguna urriaren 31 da.



Bihar kontsumo arduratsu eta ekologikoaren azoka egingo da

Kontsumo arduratsu eta ekologikoaren azoka egingo da bihar goizean Untzagan, *Kontsumo Kontzientziarekin*, *Kontzientzia Kontsumoan* goiburupean. Biolur Gipuzkoako Nekazaritza Ekologikoaren Elkarteak, Egoaizia GGKEak, Eibarko Udalak, Debemen Debabarreneko landa-garapenerako elkarteak eta ENEEK-Ekolorra Euskadiko nekazaritza eta elikadura ekologikoaren kontseiluak antolatu dute, hiru-

garren urtez jarraian, "herritarrei beste kontsumo modu bidezkoago, jasagarriago eta ingurumenarekin konprometituago bat ezagutzeko aukera emateko". Kontsumo-eredu arduratsuago baten alde lan egiten duten eskualdeko 21 bat ekoizle hartuko dute parte azokan.

Aurkezpenean esan zutenenez, "aurten ere, 12:00etatik 14:00etara, sukaldaritza-erakustaldia egingo da, produktu ekologikoekin, Miriam

Chef Integrativaren eskutik, eta sagardo-dastaketa bat, Lizagarrekin, kontsumo ekologikoa bultzatze aldera".

Antolatzaileek, halaber, jendea animatu nahi dute erabiltzen ez diren mugikorrak, bizikletak eta ordenagailuak azokara eramatera, "bigarren bizitza bat emateko eta kontsumo zirkularragoa sustatzeko". Amaitzeko, azokaren harira antolatutako den kartel lehiaketara aurkeztu dituzten lanak erakutsiko dituzte. Lehiaketa Malak Mouahidik (11-15 urtekoen kategorian) eta Oiha-na Lasuenek (16 urtetik gorakoaren kategorian) irabazi dute.

B

ERBETAN JAIA

Urriak 21

martitzena

Errebal Plazan

17:30 - 19:00



DISKO ARIMA

MUSIKA FESTA

eta kitto!

euskal enpresa



Horrelakoa zen Gaza Israelen bonbardaketen aurretik. THE PHOENIX OF GAZA

'The Phoenix of Gaza' dokumentala emango dute Coliseo antzokian

Genozidioaren aurretik Gaza nolakoa zen erakusten duen dokumentala ekarriko dute, urriaren 15ean eta 16an, Coliseora. Gainera, Yousef Ahlelou egilea bertan egongo da eta ikusleen galderak erantzunango ditu. Dokumentalak arrakasta handia izan du atzerrian eta Iñaki Laskurain eibartarraren eskutik iritsi da gurerara.

Yousef Ahlelou kazetari eta zinegile palestinarren 'The Phoenix of Gaza' dokumentalak munduari buelta eman dio bertan azaltzen duenagatik. "Israelen bonbardaketen eta genozidioaren aurretik Gaza nolakoa zen azaltzen du", esan digu Iñaki Laskurainek.

Reuters Institutuen bekari esker 2013an Oxfordeko Unibertsitatean kazetaritza ikasteko aukera izan zuen Ahlelouk. Hamarkada bat egin zuen Gazatik kanpo eta 2023ko uztailean etxera itzultzea erabaki zuen

txikitako bizilagunekin eta tokiekin berriz konektatzeko. Bere asmoa Gazako poza, altxorak eta edertasuna batzen zituen dokumentala egitea zen eta eraikin historikoei, hondartzako bizitzari, aisialdirako espazioei buruzko erreportaje zabalaren egin zuen... urriaren 8an Israelen hiri guztia suntsitu aurretik.

Alhelou berehala konturatu zen hartutako irudiak setiatutako eta blokeatutako gunearen bizitza kultural, sozial eta ludikoaren azken erreregistro bihurtuko zirela, eta

'The Phoenix of Gaza' sortu zuen. Bertan, ikus-entzuleak Gaza Yousefen begietatik ikusiko du: Israelen okupazioaren, blokeoaren eta oldarraldi militarren aurrean, gazatarrek sormena eta erresiliencia nola lantzen duten; eta edertasunak nola egiten dion uko itzaltzeari.

Egilea egongo da

Dokumentala urriaren 15ean (euskaraz) eta 16an (gaztelaraz) emango dute Coliseon, 19:00etan (oraindik ez dute zehaztu sarreraren prezioa). Gainera, Yousef Ahlelou autorearen bertan izango da, eta ikus-entzuleen galderei erantzunango die. Egileak asko du esateko, are gehiago jakinda 2023ko abenduaren 10ean Israelen bere ahizpa eta haren zazpi seme-alabak hil zituela.

Dokumentala Iñaki Laskurainek ekimenez iritsi da gurerara, nahiko bide bitxia eginez. Izan ere, Laskurain Eibar eta Dublin artean bizi da, han baititu bi semeak. Errugbian ibilbide oparoa egin ondoren, kirolaren bitartez sareak ehundu ditu Irlandan eta Palestinaren aldeko talde bateko kide da, 'Dubs for Palestine'. "Taldekako sortzaile bat eza gutzen nuen, David Hickey, futbol gaelikoko jokalaria eta errugbilari ohia, eta baita munduko transplante-zirujau garrantzitsuenetakoa bat ere", diosku Laskurainek. "Bikote bilbotarra duen Victor King ere eza gutzen nuen eta esan zidan Yousef laguna zuela".

Honek dokumentala Euskal Herrira ekartzea proposatu zion eta Gernika - Palestina elkartearekin harremanetan jarri zen, baina ez zuten interesik azaldu. "Orduan, Jon Iraola alkatearekin harremanetan jarri nintzen eta atseginez hartu zuen dokumentala Eibarren emateko proposamena", diosku Laskurainek.



1955ean jaiotako eibartarren ospakizuna

Argazkian ikusten dituzuen andra-gizonek primerako eguna pasatu zuten aurreko zapatuan, beraien kinto-egunaren jaietan. Aurten ere talde polita batu da, 70 urteak elkarrekin ospatzeko.

Ezkur bilketa antolatu dute urriaren 19rako

Eibarko Baso Biziak elkarteak antolatuta, ezkur-bilketa egingo dute urriaren 19an (domeka), gero gorde eta ernatzeko. Untzagatik abiatuko dira, 10:00etan. Jasotako ezkur bakoitzeko euro bat bideratuko zaio Palestinaren aldeko plataformari.



500 eurorainoko laguntzak lanbide-prestakuntza eta enplegarritasuna hobetzeko

Enplegarritasuna hobetzeko formazio-jardueretan erabiltzeko dirulaguntza-programa abiatu du Udalak aurten ere, eta horretarako 10.000 euroko partida bideratu du. Langabezian dauden edo lan hobe baten bila dabiltzan eibartarrek 500 euro arteko dirulaguntza jaso ahal izango dute, lanbide-prestakuntza edo gaitasun profesionalak hobetzeko ikastaroak ordaintzeko. Dirulaguntzak Lanbide Heziketako gradu ertain edo goi-gradu etarako, atzerriko hizkuntza-ikastaro ofizial etarako eta gidabaimena ateratzeko ikastaro etarako (A motakoak izan ezik) izango dira. Gainera, laguntzak formazioaren kostua, beharrezko materialak eta garraio-gastuak (Eibarren bertan egiten direnak salbu) estali ahal izango ditu. Pertsona bakoitzak formazio-jarduerak bakar baten gainean jaso ahal izango du laguntza. Eskabideak urriaren 31ra arte aurkeztu ahal izango dira Pegoran edo www.eibar.eus webgunearen bidez.

DEPOR TABERNA
T. Etxebarria, 16 943 94 49 12
deportaberna@deporoibar.com

- **EGUNEKO MENUA**
astebeneretik ostiralera
13:00etatik 15:00etara
- **ASTEBURUETAN**
razioak, otartekoak,
plater konbinauak...
- **GOSARIAK** egunero
- **TALDEENTZAKO**
menuak egiten dira

FUNEUSKADI
Funeraria

FUNERARIA MUGICA
Funeraria

TANATORIO EIBAR

TANATORIO ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Otaola, 27
Elbarko bulegoa: Bidebarrieta, 20
Elgoibar: Kaxilon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

“Tamaina guztietako txakurrek disfrutatzeko momentua izango da”

EIDER ANGUERA • Marcan Huella elkarte



‘Txakurak Uretara’ doako jarduera antolatu du Eibarko Udalak ‘Marcan Huella’ elkartearekin batera. Ekitaldi honen bitartez txakurrek udal-igerilekuan bainu bat hartzeko aukera izango dute bihar. Aisialdirako espazio desberdin bat izango da, bai animalientzat bai familieientzat.

Inoiz egin gabeko jarduera bat egingo dute bihar, zapatua Eibarko igerilekuetan: txakurrek udal-igerilekuan bainua hartzeko aukera izango dute lehendabizikoz eta doan. Eibarko Udalak antolatu du ekimena ‘Marcan Huella’ elkartearekin lan-kidetzan. Udako denboraldia amaituta, instalazioa itxi aurretik igerilekuei beste erabilera bat emateko asmoz sortu du jarduera Udalak. Instalazioa hustu, ura berriztu eta mantentze-lanak egin aurretik, animalia eta familieentzat aisialdirako espazioa eskaini nahi izan dute. ‘Marcan Huella’ elkarteak boluntarioa da Eider Anguera.

Zer da Marcan Huella elkarte?

2014an hasi genuen ‘Marcan Huella’ proiektua bost lagunek. Gaur egun familia bat gara. Gure lana da bai kalean bai txakurtegietan dauden txakurrei bizitza polit bat bilatzea, eta, besteak beste, albaitariarengana eramatea. Hamabi urte hauetan pila bat txakurrei bilatu diegu familia edo bizitza on bat.

Hamabi urte hauetan ekintza ugari egin dituzue. Hala ere, inoiz ez igerilekuetan.

Guretzat lehendabiziko aldia da, bai. Beti egin izan ditugu canicrossak, martxak menditik, galak, dantzak... Baina horrelakorik ez. Udaleko kirol zinegotziak egin zigun proposamena, irailaren 28an udal-igerilekuak itxiko zituztela-eta. Lehenengo momentuan harritu egin ginen. Kloroa arriskutsua izan zitekeela pentsatu genuen, ez genekien txakurak uretan nola sartu edo

irtengo ziren... Bestalde, dena kontrastatu eta aurre-ra egitea erabaki genuen. Kloroak ez du arriskurik eta txakurak irteteko aldapatxo batzuk jarriko ditugu. Igerileku handia, ertaina eta txikia erabiliko ditugu, tamaina guztietako txakurrek disfrutatu dezaten. Era berean, igerilekuko puntu batzuetan kubotxo batzuk jarriko ditugu txakurrek ura edan dezaten.

Gogotsu zaudete, beraz.

Bai! Guretzat ere esperientzia berria da. Sorpresa izango da guztiontzat, bereziki txakurrentzat. Azkenean, txakurrek beti esperientzia bera izaten dute: parkera joatea, pilotarekin jolastea... Gure helburua txakurak haien artean harremantzea da. Sozializatzen ikasi dezatela. Hori dela eta, jabeek jostailurik ez ekartzeko eskatu nahi diegu, egun batengatik etxean laga ditzatela. Ez dugu triskantzarik izaterik nahi. Egia da askotan ez dela ezer ere ez gertatzen. Baina, beste batzuetan norbaitek pilota bat bota eta bost txakur joaten dira atzetik pilotaren bila. Eta zer gertatzen da? Triskantza sortzen dela. Orduan, egun batengatik hobe da jostailuak etxean uztea.

Jostailuez gain, baduzue bestelako eskaerarik?

Pena da, baina hilerokoa duten emeak ezingo dira sartu. Jostailuekin gertatzen den bezala, ez dugu triskantzarik nahi. Hau da, txakur arrak emearen atzetik saltoka, zaunkaka eta abar egotea. Eta, kakei dagekionez, jakina, jaso egin behar dira.

Txakurrez gain, jabeak ere uretan sartu daitezke?

Ez. Hala ere, sorosle bat egongo da. Txakurren bat



uretatik atera behar baldin bada, pertsona bat egongo da horretarako. Gainera, 'Marcan Huella' elkarte-koak txalekoekin ibiliko gara laguntzen eta txakurren arteko giro ona mantentzen.

Bada azpimarratu nahiko zenukeen punturik?

Hainbatek kexak edo zalantzak adierazi dituzte egitasmoaren inguruan. Kontuan izan dezatela: igerilekuak itxi egingo dituzte. Beraz, instalazioak ez dira erabiliko. Gainera, ur hori hemendik udara bitarte ez da egongo garbitu eta aldatu egingo baitute. Belarra ere bai, aldatu egingo dute. Orduan, ez dago arazorik txakurrek egun horretan ondo pasa dezaten. Hurrengo udarako, herritarrak joaten direnerako, ez da ezta txakur ile bat ere egongo.

Azken eskaerarik?

Gauzak horrela, herritarrak igerilekuetara hurbiltzera gonbidatu nahi ditut. Gainera, 'Marcan Huella' elkartearen merchandisinga ere egongo da salgai, gure arropa eta loteriarekin. Postu bat ere izango dugu freskagarriekin eta pintxoekin. Modu berean, eskuak behar ditugu. Beraz, baten batek bere burua sorosle gisa edo beste lanen bat egiteko eskaintzen baldin badu gurekin kontaktatu. Baita etorkizunera begira ere, 'Marcan Huella' proiektuak aurrera egin dezan.

“Marcan Huella elkarte-koak txalekoekin ibiliko gara laguntzen eta giro ona mantentzen.”

ELKARRIZKETA OSOA
(YouTube)





JULEN BOLLAIN

Tradizioa, ekonomia eta bizikidetzatza dantzan

Eibar ez da industriaren eta lanaren ikur historikoa soilik. Bizitzaz, kultura-aniztasunaz eta herrigintzaz blaitutako komunitatea ere bada. Urteko hainbat momentutan, kaleak kolorez eta doinuaz janzten dira, jaiak aisialdirako une aproposak bihurtuz. Baina, horretaz gain, jaiak eta herri-jarduerak gure herriaren ekonomia, kohesioa eta nortasuna biziberritzen duten ardatz sendoak dira. Sanjuanak, Arrateko jaixak, San Andresak, Sagardo Eguna, gure auzoetako jaiak edo zapatutik zapatura mugimendu anitzek burutzen dituzten jarduerak ez dira folklore hutsa. Herritarren parte-hartzea sustatzen duten guneak dira, belaunaldi eta persona desberdinen arteko zubia. Klean antolatzen diren ekintzek — musika, gastronomia, kirol-txapelketak, artisautza-azokak, etab. — bultzada nabarmena ematen diete tokiko ostalaritza eta merkataritzari, tokiko produktu eta zerbitzuen balioa handituz eta ekonomia zirkularraren logikan sakontzen lagunduz.

Gainera, ekitaldi horiek sortzen duten dinamismoak lanpostu osagarriak ekartzen ditu; muntaketa, segurtasuna, garbiketa, komunikazioa, kultur produkzioa... Zer esanik ez, herriaren irudiari egindako ekarpenaz. Kanpotik bisitariak erakartzen dituzte, eta honek gertuko turismoari atea irekitzen dizkio, Eibar helmuga kultural gisa kokatuz. Jaiak herriko elkarteek beren lana ezagutarazteko eta komunitatearen parte izateko sentimendua areagotzeko aukera ere badira.

Baina, nahiz eta hori guztia garrantzitsua izan, agian ez da inportanteena. Ba al da monetizatzerik ekitaldi horiek guztiek gure hirian sortzen duten bizikidetzatza eta identitatea? Horiek guztiak espazio partekatuak dira, non desberdinen arteko elkarbizitza errealitate bihurtzen duten. Herri bizi baten seinale dira, eta eguneroko erritmoari arnasa ematen diote, gure historia kolektiboa eguneratuz eta belaunaldien arteko haria ehunduz. Gure gazteek txosnetan parte hartzen duten bitartean, adinekoek plazan dantzan egiten dute; etorkinek euskal kulturarekin bat egiten dute, eta herritar askok boluntario modura lan egiten dute, elkar zaintzaren logika aktibatuz.

Horregatik, Eibarren egiten den ekintza- eta jai-egutegi aberats eta anitzak ez du gure kaleak betetzen soilik. Gure hiria bera bizirik mantentzen du, erritmo kolektiboaren taupadan jarraitzen duela gogoraraziz. Eskerrik beroenak parte hartzen duzuenoi eta besarkada handi bat herri lanean jo ta ke ibiltzen zaretenoi, askotan isilpean baina etengabe, gure komunitateari bizia ematen diozue eta.

“Jaiak eta herri-jarduerak gure herriaren ekonomia, kohesioa eta nortasuna biziberritzen duten ardatz sendoak dira”



Komentatutako bisitan bizikletagintzari lotutako hainbat toki esanguratsu erakutsiko dituzte.

“Bizikletaren arkitektura Eibarren” bisita gidatua egingo da urrian

Europako Kontseiluaren ekimena dira Ondarearen Europako Jardunaldiak, eta Europako Batzordearen babesa daukate. Urritik azarora bitartean, 50 estatu kide baino gehiagok hartuko dute parte ondarearen hedapenerako urtero antolatzen den ekitaldi handi honetan. Funtsean, Europako herritarrak Europako kultura aberastasunaren eta aniztasunaren inguruan sentsibilizatzea da asmo nagusia. Aurtengo goiburua *Ondarea eraikitzen. Construyendo cultura* da eta, horri jarraituta antolatu diren jardueren bitartez, arkitekturaren lorpen artistiko eta teknikoak nabarmendu nahi dira.

Armagintzaren Museotik azaldu dutenez, “Eibar batez ere armen fabrikazioagatik da ezaguna, baina 1920ko krisiak produktuen dibe-

tsifikazioa ekarri zuen. Makineria eta ezagutzak baliatuta, bizikleten ekoizpena asko errotu zen gure herrian. Enpresen ingurua, kokapena, ezaugarri arkitektonikoak eta historia ezagutzeko bisita proposatzen dugu. Industriek etxebizitzekin partekatu zuten espazioa eta



Aurreko edizioetan bezala, Ondarearen Europako Jardunaldiekin bat egin du Eibarrek eta, Eibarko Armagintzaren Museoak eta Eibarko Udalak antolatuta, “Eibar: bizikletaren arkitektura” izenburuko bisita komentatua prestatu dute, urriaren 18rako eta 25erako. Egun bakoitzean bi bisita egingo dira: lehena 11:00etan izango da, gazteleraz, eta bigarrena 12:30ean. Biak abiatuko dira Errebal Plazatik.

horrek eragina izan zuen Eibarko hirigintzan”. Hori ondo baino hobeto daki Joseba Aranzabal arkitekto eibartarrak, antolatu duten komentatutako bisitaren oinarria *Bizikletaren arkitektura Eibarren* bere doktorego-tesia baita. Ikerketa-lan horretan bizikletak eta bizikleten osagarriak ekoizten zituzten enpresak identifikatu eta jaso zituen berak. Fabrikak non zeuden, eraikinen planoak grafiatu, gaur egun zutunik dauden ala ez jaso, eraistearen zergatiak, pasarteak... horiek guztiak ikertu eta bildu zituen Aranzabalek bere lan horretan.

Bisita Errebalen hasiko da eta ibilbide honi jarraituko zaio: Jardinetza, Pagaegi, Estaziño, Bittor Sarasketa, Urkizu eta Txonta. Kale horietan bizikletagintzari lotuta egon ziren hainbat tokitan geratzen joango dira, azalpenak emateko. Amaiera Urkizun izango da.

Bisita dohainik da, baina plaza kopurua mugatua da (20 lagun gehienez) eta aurretik izena eman beharra dago, Armagintzaren Museora deituta (943 708446) edo mezuaz bidalita (museoa@eibar.eus).



Gurasoak Berbetan eta Ongietorriko familiak Igartubeiti baserrian izan dira

Eguraldia lagun, zapatu goiz zoragarria pasa zuten Gurasoak Berbetan eta Ongietorri egitasmoetako hainbat familiak Ezkioko Igartubeiti baserrian. XV. mendean eraikia, euskal baserriaren Urrezko Aroaren adibide paregabea da. 1992az geroztik museoa da eta bertako mendeetako bizimodua ezagutzeko aukera ederra eskaintzen du. Zapatuan, esaterako, sagardoa egiteko prozesua ezagutu zuten Eibartik joandako familiek. Gainera, ikasitakoa praktikan jarri eta sagar-zuku gozoa dastatu zuten autobusa hartu eta etxera itzuli aurretik.

San Andres Bertso Paper lehiaketarako epea zabaldu da

...eta kitto! Euskara Elkarteak abian jarri du XXXI. San Andres Bertso Paper lehiaketa. 16 urtetik gorakoen mailan Euskal Herri osoko lanak aurkeztu ahal izango dira. Gaia eta doinuak libreak izango dira, eta lau puntu edo gehiagoko 6 bertso gutxienez eta gehienez 10 aurkeztuko dira. Lanaren 3 kopia entregatuko dira gaitzizenaekin sinatuta, eta gutunazal itxian gaitzizena identifikatzeko datuak (izen-abizenak, bizilekua eta telefonoa). Bertsoak postaz bidaliko dira edo norberak eraman ditzake, beranduenez azaroaren 7rako, ondoko helbidera: ...eta kitto! Euskara Elkarte. Urkizu 11 solairuartera. 20600 Eibar. Egilea bakoitzak, asko jota, lan bi aurkeztu ahaliko ditu.

...eta kitto! Jaiko zozketako eta lehiaketako irabazleak

Joan den irailaren 27an ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatu zuen Jaian hainbat zozketa eta lehiaketa izan ziren. Batetik, rifei dagokienez, Nerea Arakistain 1.811 zenbakiaren jabeak jaso du saria, paradore batean bi lagunentzako bai gauetako egonaldia, hain zuzen. Eta, bestetik, ...eta kitto! Jaiaren harira antolatutako argazki-lehiaketa Maddi Teranek bidalitako argazkiak irabazi du (sagardolotea). Zorionak Maddi eta kua-drilla! Bide batez, ...eta kitto!-k eskerrak eman nahi dizkizue rifak erosi eta argazki-lehiaketan parte hartu duzuen guztioi.





Inazio Tolosa eta Kandido Uranga antzerkigileak, Zumaian, 'Gabriel Arestirekin' ikuskizuna antzeztzen. BERRIA

Gabriel Arestik Eibarren bizitako pasarteak taularatuko dituzte

Kandido Uranga eta Inazio Tolosa aktoreek 'Gabriel Arestirekin' antzezlan eskainiko dute hilaren 24an, 19:00etan, Portaleko areto nagusian. Ikuskizuna sortzeko Pedro Alberdiren 'Gabriel Aresti Eibarren' ipuina hartu dute oinarri. Sarrera 5 eurotan eskuratu daiteke online (Kutxabank bitartez), Coliseoaren leihatilan edo ekitaldia hasi baino lehen, Portalean.

Gabriel Aresti hil zela 50 urte beteko dira aurten eta antzezlan hau aukera ederra da euskal kulturaren mugarria den artista ezagutzeko. Ikuskizuna Kandido Urangaren apustu pertsonala da eta, bere hitzetan, aspalditik zor zuen emeraldia. Uranga izango da narra-tzailea eta Inazio Tolosa sartuko da Arestiren azalean.

Oso hurbiletik ikusteko emeraldia da. Antzezlan honek klasi-koa era esperimentalean azalduko digu, ohol-tza soil batean eta oso

zuzen. Hiztegia eta hizkerari buruz ere gozamenerako aukera eskainiz.

Bi osagai

'Gabriel Arestirekin' antzezlanak bi osagai ditu. Batetik, idazlearen 'Harri eta herri' liburuko Q letrari dagokion 'Profeta bati' izeneko poema errezitatzen dute. Liburua argitaratu zenetik 60 urte igaro badira ere, poema horren giroa eta espiritua erraz lotu daitezke gaur egungo egoerarekin eta gizartearekin. Bestetik, Pedro Alberdik

idatzitako 'Gabriel Aresti Eibarren' fikzio-lanean oinarritzen da. Bertan, Arestik Eibarren lan egin zuen garaia aitzakiatzat hartuta, haren egunerokotasunaren hiruzpalau ordu berreraiki zituen idazle eibartarrak, ipuin eder batean. Antzezlan honen zuzendariek ipuin hori egokitu eta moldatu dute, antzerki moduan erakusteko.

Eibarren jaio eta Bilbon urte mordoxka bizi ondoren, Zumaia du bizitoki gaur egun Pedro Alberdik. "Emaztea eta biok udatiarrak izan gara beti bertan", esan zigun otsailean egin genion elkarrizketan. Kostan pasa dituen udetan lagunak ere egin ditu, tartean Kandido Uranga aktorea, eta urteetako harremana du berarekin.

Aresti Eibarren

Gabriel Aresti 1966an egon zen Eibarren lanean eta hemen egiten zuen lo astegunetan. Bitartean, emaztea eta hiru alabak Bilbon zeuden, sasoi hartan ez zegoelako autobiderik eta egunero joan-etorrian ibiltzea oso nekagarria zen berarentzat.

Txontako Industrias Rocandio enpresan egin zuen lan eta Itziartarran egon zen apopilo. "Aresti Eibarren egon zela jakin nuenean, ezin nuen sinestu", kontatu zigun Alberdik. Sasoi hartan, idazle eibartarrak bederatzi urte inguru zituen.

BIDEOA



Haurreskola publikoetan ezin sartu

Euskal Autonomia Erkidegoan 'Haurreskolak partzuergoa' zerbitzua doakoa da 2022-2023 ikasturtetik. Doakotasun horrek harrera ona izan duela islatzen du eskaerak: gaur egun Eibarko plaza guztiak beterik daude. Hori dela eta, hainbat ume haurreskola publikoetan sartu ezinik gelditu dira.

Eibarko haurreskola publiko guztietako plazak beterik daude. Hala jakinarazi die azken asteotan Haurreskolak partzuergoak Eibarko Udalarari eta hainbat familiari. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako haurreskola publikoak batzen dira partzuergoan, eta izen ematea doakoa da 2022-2023ko ikasturtetik. Ordutik, matrikulazioak "izugarritzko gorakada" izan du eta arazoak sortu dira eskaerak plazak baino gehiago direlako. Guraso edo tutoreek konponbide bila jarraitzen dute: sarbide unibertsala haur guztien-

tzat izatea eta kontziliaziorako alternatibak bilatzea eskatzen dute.


Izenik eman nahi ez duen guraso batekin hitz egiteko aukera izan du ...eta kitto!-k. 2 umeren ama da. Nagusiak lau urte ditu eta alaba urtarrilean jaio zen. Alaba urtarrilean haurreskolan sartzea nahiko luke, baina plaza lortzearekiko ezkor da: "Aurreikuspena ez da oso ona. Gure nahiaren kontra, pribatura jo beharko dugu".

Eibarko haurreskoletan dagoen egoera larria eta kezagarria dela dio amak. Baita zalantzarria ere, ez baitakite zer gertatuko den da-

tozen hilabeteetan. "Eibarren ez, baina inguruko herrietan badago plazarik. Ermuan 17 plaza daude, eta urrunago joanda, Tolosan 29. Plazak egon badaude, baina horrek ez du kontziliazioa errazten. Kontziliazio faltak asko kezkatzen gaitu."

Datuetan jarri du arreta gurasoak: "Eustaten arabera, 2024an 157 jaioberri erregistratu ziren Eibarren. Aurtengo erregistroaren daturik ez da zabaldu oraindik. Hala ere, nire alaba urtarrilaren 5ean jaio zen eta ordutik egoera ez da aldatu: irailean -matrikulazioak "orokorragoa" izan beharko lukee-





Orbeako haurreskola. IRUNE JAIJO

nean- ezin baldin baduzu izenik eman, denborarekin zailagoa izaten da matrikulazioa egitea. Oker ez banabil, 109 plaza eskaintzen dituzte urtero 0 eta 2 urte bitarteko haurrentzat Eibarko haurreskola publikoetan banatuta. Datuak kontuan izanik, argi dago eskaintzen dituzten plazarik eskaera baino gutxiago direla. Egoera hau aurreikusi zitekeela uste dugu. Urrian gaude jada eta hamar hilabetetan 60 bat ume jaio dira behintzat. Gainera,

jaioberri horiei iaz eskoletan sartzetik izan ez zuten haurren eskaerak gehitzen zaizkie. Egia da jaioberri guztien tutoreek ez dutela haurreskoletan sartzetik nahi izaten, baina aldi berean, eskaintza egon behar da.”

Ez dira gutxi konponbide baten bila batu diren gurasoak. “Guraso elkarte hau apirilean sortu zuten, matrikulazio epea zabaldu eta ume pila bat plazarik gabe geldituko zirela konturatu zirenean. 70-72

guraso inguru gaude taldean. Hori bai, guraso guztiak ez gara eibartarrak”.

Gurasoak dioenez, badira jada kaltetuak diren familiak, matrikula eginda itxaron zerrendan daudenak, kasu. “Ez soilik ume jaioberrien kasuan, 1-2 urte bitartekoen kasuak ere badaude. Arazoa egon badago. Berez, matrikulazio epea zabalik da urte osoan, baina ikasturte hasiera kontuan izanik, urrian gaude eta ez dago plazarik.”



Arrateko Andra Mari haurreskola. IRATIALVAREZ

Instalazio berriak

Arrateko Andra Mari, Orbea eta Amaña dira gaur egun herriko haurreskola publikoak. Bestalde, plazen eskaera altua dela ikusita, Eibarko Udalak bi instalazio sortuko dituela jakinarazi du, bata Jazinto Olaben; bestea, Blas Etxeberrian. Instalazio berrien inguruko zalantzak argitzeko asmoz, gurasoei bildu zen udala duela astebete. Udalak bilera horretan ezagutarazitakoaren arabera, udal-letxetik haurreskola gisa erabiltzeko lokal bila ibili dira hilabete hauetan: “Ezezko ugari jaso ditugu. Gainera, aipatu beharra dago lokalak lortuta ere, Partzuergoari dagokiola azken onespina. Hau da, haurreskola gisa erabili daitekeela onartzea. Eta instalazioak prest egon ondoren, haurreskolen lokalak Haurreskolak partzuergoaren esku geldituko dira. Erakunde horren lana izango da ekimpendua eta martxan jartzea”.

“Familiok haurrak eskolara publikora joateko eskubidea izan dezaten nahi dugu”

Hainbat familiek udalaren ekimena txalotu dute, baina haien egoera ez da aldatu: “Plazarik egon ezean, haurrek ezingo dute doako eskaintza izan”. Aldi berean, mila zalantza sortu dira gurasoen artean: Obrak amaituta ere, noiz izango dira eskola horiek abian? Noiz izango dute haurrek herrian eskola publikora joateko aukera?

Orain, datorren urtera begira, plazen eskaera zehatza eta gurasoen

iritzia jasotzeko asmoz, inkesta bat bidali die gurasoei udalak. “Inkestaren bitartez egoeraren inguruko analisi bat egin nahi dugu, ondoren ekintzetara pasatzeko”.

Gauzak horrela, haurraren amak argi nabarmendu du guraso taldearen aldarria: “Aldarrikapen nagusia udalaren laguntza lortzea da, familiek etorkizun hurbila antolatu ahal izateko eta Eibarko haurrek bertako haurreskoletan ikasiko dutela bermatzeko”. Era berean, bi proposamen nagusi dituzte gurasoek egoera konpontzeko: Alde batetik, zabalik dauden haurreskoletan espazioa balego, aldi baterako haurreskola gisa erabiltzea eta Partzuergoari hezitzaile gehiagoren beharra adieraztea. Bestetik, espaziorik ez balego, eraikinen bat alokatzea, ondoren haurrentzako materialez hornitu eta partzuergoak hezitzaileak bidaliz, erabilgarri egon daitezen.



Kalamuako kadeteek esperientzia hartu dute judoko Espainiako Kopan

Asteburuan kadete mailako Espainiako Kopa lehiatu zen Kantabrian eta bertan izan ziren Kalamua judo klubeko lau kirolari. Taldetik esan digutenez, “emaitzak ez dira bikainak izan, baina hainbat randoritan esperientzia hartu ahal izan dute”.

Izan ere, Eibartik joandako lau judoken artean, Doha Shrirrek bakarrik zuen esperientzia maila horretan. 70 kg-koen artekoan aritu

zen bera eta garaipen batekin eta bi porrotekin itzuli zen etxera.

Aner Gonzalez, bere aldetik, 55 kg-koen mailan aritu zen eta bi porrot jasan zituen. Eta azkenik, porrot bakararekin itzuli ziren etxera Julen Martin (66 kg) eta June Valladares (60 kg).

Kalamuakoek Anaitasuna Txapelketan egingo dute hurrengo geldialdia.

Malape Taberna da Futbol Zaletuko lider bakarra

Aldeak handitzen doaz Futbol Zaletuan. Bere partiduan 0-4 irabazi eta Bar Maremek bina egin ondoren, lidergoko berdintasuna apurtu du jardunaldi honetan Malape Tabernak. Orain, 12 puntu ditu, lau jardunaldietan garaipena lortuta, eta bi puntuko alde ateratzen dio Bar Maremi. Gainera, hurrengo jardunaldian Bar Maremek atsedena hartuko du eta Malape Tabernak azken sailkatua izango du arerio: Baserri.

Sailkapenaren beheko aldean, punturik gabe daude Limpiezas Rueda eta Baserri. Kalaka Buenos Aires taldeak, ostera, denboraldiko lehen garaipena lortu zuen Limpiezas Ruedari 2-7 irabazita.

SAILKAPENA

1. Malape Taberna, 12 puntu
2. Bar Marem, 10 puntu
3. Xania Taberna, 9 puntu
4. Bergara Pneumatikoak, 7 puntu
5. Adahi Etxegi, 3 puntu
6. Garajes Garcia, 3 puntu
7. Kalaka Buenos Aires, 3 puntu
8. Limpiezas Rueda, 0 puntu
9. Baserri, 0 puntu



ELGETAN

- Enpresako BISITAK edota langileentzako LANDETXXEA.
- GOSARIA barne, LOGELA zabalak eta izugarritzko BISTAK.
- Lasaitasuna eta diskrezioa.

B&B Eguzkitza

HARREMANETAN JARTZEKO:
688 615 600
www.eguzkitzaetxea.eus









Bolada txarra Ohorezko Erregionaleko CD Urkirentzat

Ohorezko Erregional Mailako CD Urki Alkideba taldeak porrota jasan zuen asteburuan Bergaran, 3-0. Lau jardunaldi jokatu ondoren, hiru punturekin jarraitzen dute sailkapenean; orain, 14. postuan dago.

Harrobiko taldeak ere martxa betean dabilta, baina joan den asteburuan ez zituzten oso emaitza positiboak lortu. Ezta argazkian dauden emakumezkoen infantilek ere, 4-0 galdu baitzuten Amaiak Baten aurka.



Ipuruako jubenilek Arabako Federazioaren txapelketa irabazi dute

Arabako Federazioaren txapelketa jokatu zen zapatuan eta Ipurua klubeko gimnastek lehen postua lortu zuten bertan. Emaitza zoragarria, kontuan hartuta iazko taldetik gimnasta bakarrak jarraitzen duela.

Asteburu honetan, oinarrizko infantiletako, kadeteetako eta jubeniletako taldeak Xixili klubak Gernikako Jai-Alai frontoian antolatutako txapelketan egongo dira zapatuan, urriak 11. Gainera, Ane San Martin jubenila bakarka arituko da xingolarekin.



Asteburuan hasiko da Euskal Herriko Hiru Txirlo Txapelketa

Zapatuan, urriak 11, emango zaio hasiera Euskal Herriko 35. Hiru Txirlo Txapelketari. Lehen tiraldia Untzillan (Aramaio) egingo da, 17:00etan. Gero, beste lau tiraldi egingo dira, astero, eta finala azaroaren 22an jokatu da, Etxaguenen (Aramaio), 12:00etan.

Tiraldiak hauek izango dira: urriak 11, Untzillan (Aramaio), 17:00; urriak 18: Iruzubietan (Zirotza – Bolibar), 17:00; urriak 25: Ezozin (Soraluze), 17:00; azaroak 8, Lauzirika (Markina – Xemein), 17:00; azaroak 15, Elgeta, 17:00; eta finala, azaroak 15; Elgetan, 17:00.



Jokin Amorrosta bikain aritu da mendiko duatloian egin duen debutean

Urriaren 4an, zapatua, Durangoko III. Mendi Duatloia jokatu zen eta bertan egon zen JAZ Eibar Triatloi Taldeko Jokin Amorrosta. Bere estreinaldia zen mendiko duatloi batean eta bikain jardun zuen, 23 urtez azpikoen mailan irabaziz. Gainera, probako parte-hartzaile federatuen artean hirugarren izan zen, podiumera igoz.



Depor Eguna ospatzeko hainbat ekintza prestatu dituzte hilaren 15etik 19ra

Aurtengo Depor Eguna urriaren 18an ospatuko da, baina ekintzek egun gehiago hartuko dituzte. Izan ere, urriaren 15ean hasiko dira Eibarko Klub Deportiboak prestatutako jarduerak eta hilaren 19an egingo dira azkenak, klubeko sail ezberdinen jarduna gizarteratuz.

Urriaren 15ean, 19:00etan, 'Eibarko historia' izeneko hitzaldia eskainiko da Deporren, Jesus Gu-tierrez historialariaren eskutik.

Depor Eguna, berez, hilaren 18an ospatuko da, eta hor pilatuko dira ekintza gehienak. Hasteko, 10:00etan, espeleologia egingo da Ego errekan. Horretarako, aurrez izena eman beharko da eta Depor Tabernan elkartuko dira. Gainera, norberak bere frontala eraman beharko du.

Gero, 10:30ean, atlestimo era-kustaldia hasiko da Untzagan eta Txaltxa Zelain. 11:00etan, hainbat gauza egingo dira Toribio Etxebarria kalean. Batetik, xake partidak

eta xake erraldoia egingo dira, baita umeentzako txirindularitza ginkana ere, eta squashean egiteko aukera ere egongo da. Gainera, Deportonbolia eta denda jarriko dituzte.

Untzagan, 16:00etan, umeentzako sarea eta eskalada egingo dira. Eta, ondoren, dantzarako aukera egongo da. Batetik, 18:00etan, dantzaldia egingo da San Andres parrokian, Toribio Etxebarria eta Untzagan, Kezka Dantza taldearen eta Gasteizko Manuel Iradierreko dantzarien eskutik. Bestetik, 20:30ean, erromeria egongo da, Toribio Etxebarrian, Emepebost taldearen eskutik.

Hurrengo egunean, hilaren 19an, 08:30ean, Udaberritraila hasiko da Depor paretik. Eta ibilaldia egiten den bitartean, 11:00etan, pilota egongo da Astelena frontoian. Goizeko Izarra pilota-taldeko eta Deporreko pilotari kadeteen eta jubenilen hiru partida, hain zuzen ere.

ASTEBURUKO AGENDA

FUTBOLA

1. Maila

C. Adeje Tenerife - EIBAR (etzi, 12:00)

Emakumezkoen 2. Maila

EIBAR - Castelló (etzi, 12:00)

Gizonezkoen 2. Maila RFEF

EIBAR B - Ejea (gaur, 16:30)

Emakumezkoen 2. Maila RFEF

EIBAR B - At. Villalonga (etzi, 12:00)

Gizonezkoen 3. Maila RFEF

Añorga - EIBAR C (bihar, 19:00)

Erregionaleko Ohorezko Maila (gi)

URKI - Deusto (bihar, 18:00)

Erregionaleko Gorengo Maila (gi)

Lagun Onak B - EIBARTARRAK (etzi, 15:30)

Erregionaleko 1. maila (gi)

Usurbil B - URKI B (bihar, 15:30)

Jubenilen Nazional Liga (gi)

Antiguoko B - EIBAR B (bihar, 15:30)

Jubenilen Euskal Liga (gi)

URKI - Beasain (bihar, 15:30)

FUTBOL-ZALETUA

- Garajes Garcia - Xania (bihar, 09:00)
- L. Rueda - Bergara Pn. (bihar, 10:30)
- Adahi Etxegi - Kalaka Bs. As (etzi, 09:00)
- Baserri - Malape (etzi, 10:30)
- Atsedena: Bar Maren

ESKUBALOA

Zilarrezko Maila (em)

EIBAR ESKUBALOA - Sustatuz (bihar, 19:00)

1. Maila Nazionala (gi)

Romo - EIBAR ESKUBALOA (etzi, 12:15)

Seniorren Euskadiko Liga (gi)

E. ESKUBALOA B - Leizaran (bihar, 16:45)

Seniorren 1. Lurraldekoa (em)

Legazpi - EIBAR ESKUBALOA B (etzi, 12:10)

SASKIBALOA

Gipuzkoako 1. Maila (gi)

Ordizia - ARTE. JUANTXO (bihar, 18:00)

Gipuzkoako 2. Maila (em)

EIBAR SASKI - Ostadar (bihar, 14:00)

WATERPOLOA

2. Maila

Concepcion - URBAT (bihar, 17:30)

Kirol albiste gehiago
gure webgunean



“Gorputz harmoniatsua edukitzea da garrantzitsua, hau da, goitik eta behetik parekatua izatea”

IOSU RODRIGUEZ • Kulturista



Denbora asko darama bere ametsetako helburua lortzeko prestatzen, baina dagoeneko gertu dauka eguna. Iosu Rodriguezek Munduko Kulturismo Natural Txapelketari bota zion begia aspaldi eta azaroaren 15ean eta 16an izango du lortzeko aukera. Horretarako, Dubaira jo beharko du, han arituko baita munduko onenen aurka.

Elgoibartarra da Iosu Rodriguez, baina Eibarren dihardu entrenatzen orain dela hainbat urte. Urteak daramatza azaroko zita prestatzen eta xehetasun txikiena ere zaintzen du bere lana ahalik eta ondoen egiteko. Aurretik, oster, Italian arituko da, Galaxy Pro Show proban, eta zapore onenarekin ekin nahi dio Dubaiko erronkari.

Aste biziak dituzu aurretik!

Oso biziak! Entrenamenduaren fase honetan egunean 8 litro ur edan behar ditut, gatzarekin, eta oso gogorra da, baina hau pasa behar dut helburua lortzeko.

Eta hori, zergatik?

Gorputza lehortzeko. Hau da egiten dudana lehen doikuntza, Italiako proba aurretik beste bat egingo dut eta ikusiko da Dubaiko baina lehen beste bat egiten dudana.

Lehenik, Italian lehiatuko zara eta, gero, Dubain. Nola egiten diezu aurre proba biei?

Nire helburu nagusia Dubaiko da. 2022ko Munduko Txapelketan, Pragan (Txekiar Errepublikan), 3. postua eskuratu nuen profesionaletan. Nire debuta izan zen eta aho-zapora ona utzi zidan. Beti nahi izan dut txartel profesionala edukitzea, baina ez nuen pentsatzen lortuko nuenik. Amateurra izan naiz beti eta txapelketa

jakin batzuetan emaitza onak lortuz gero ematen dizute txartel profesionala, eta nik lortu nuen.

Horrek bultzada eman zion zure karrerari? Beste modu batean jarduteko aukera eman dizu?

Profesionala izanda, herrialde bakoitzeko lehen parte-hartzailearekin irteten naiz eszenatokira. Gainera, lehen dominak bakarrik irabazten nituen, baina orain baita dirua ere. Hori bai, era berean, parte hartzeko diru gehiago ordaindu behar da. Kirol honek ez du diru asko ematen. Pragan 3. geratu nintzen eta 300 euro jaso nituen... eta nik 270 euro ordaindu nituen parte hartzeko! Orain, Italiako proban, lehenak 1.500 euro irabazten ditu printzipioz, baina parte-hartzaileen araberakoa da hori. Dubain diru gehiago ematea espero nuen, baina 700 euro izango dira irabazlearentzat.

Eta horra heltzeko, nolako inbertsioa egin behar izan duzu?

Nik gastatutakoa irabazi dezakedana baino askoz ere gehiago da. Hori bai, txapelketan lan ona eginez gero, babesleak etorri ahal zaizkizu. Zentzu horretan, eskerak eman nahi dizkiet Eibarren eta Elgoibarren ditudan babesleei.

Nolako lana egin duzu urte hauetan?

2022. urteaz geroztik dihardut txapelketa prestatzen.



Dubaiko Munduko Txapeketatik urrezko dominarekin itzultzea du helburu Iosu Rodriguezek.

Azken bi urteetan jo eta su aritu naiz. Era berean, bizitzaz gozatu behar da ere, hau zaletasuna delako eta bizitzako beste kontu batzuk ezin direlako albora batera laga. Honetan bakarrik ibiliz gero, asebate eta gogaitu egin zaitezke. Orduan, lagunekin eta abar ibili naiz, baina baita entrenatzen ere, hori beti. Azken 20 asteak izan dira benetan buru-belarri ibili naizena hau prestatzen. Beraz, arlo fisikoaz gain, burua ere landu behar da, ezta? Niretzat ezinbestekoa da egunerokoaz gozatzea. 24/7 zaude momentu handian pentsatzen eta, gero, momentua heltzen da eta 10 minutu besterik ez dira. “Eta orain zer? Hiru urte daramatzat jo eta su 10 minutura?” pentsa dezakezu. Horregatik diot garrantzitsua egunerokoaz gozatzea dela.

Eszenatoki gainean zu bakarrik zaude, baina noren laguntza jaso duzu hortik kanpo?

Orain, Bilboko Yerayrekin ari naiz eszenatoki gainean egin beharreko posturak-eta, posinga, lantzen. Bestalde, Iune ere, nire entrenatzailea, Bilbokoa da. Zortzi urte daramatzat berarekin eta oso pozik nago. Gero, nire kabuz entrenatzen dut Iron gimnasioan.

Eszenatokira igotzean zein izaten da zure eginkizuna?

Eszenatokira banan-bana igotzen gara eta norberak bere burua aurkezten du. Horretarako, 30 segundo inguruko aurkezpena egiten dugu. Dubairako zerbait berezia prestatu dut, atentzioa emango du. Gero, lerroan jartzen gara, atzean. Denok eszenatokian gaudenean, aurrera egiten dugu eta hor hasten dira konparaketak. Asko izanez gero, epaileek zenbakien arabera deitzen digute aurrera egiteko. Normalean, lehen deian aurrera egiteko esaten badizute, zerbait polita ikusten dutelako izaten da, gauzak ondo doazen seinale.

Epaileek zer baloratzen dute?

Ondo taularatzea, modu seguruan aurkeztea, posinga perfektua izatea, kondizio gardena edukitzea, oso lehor egon behar zara... Nire kategorian, ‘men fitness pro’, gorputz harmoniatsua edukitzea da garrantzitsua, hau da, goitik eta behetik parekatua izatea.

Zein da zure punturik indartsuena?

Sorbaldak eta bizkarra. Hankak ere asko hobetu ditut aurten, eta baita bularra ere.

Zein helbururekin zoaz?

Munduko Txapelketa da nire helburua. Ez dakit zer gertatuko den, baina hori bakarrik dut buruan.

“Esperientzia zoragarria da nire musikaren ondarea Europako publikoarekin partekatzea”

MARTHA FIELDS • Musikaria



Martha Fieldsek zabalduko du Musika Klubaren denboraldi berria. Domekan joko du, 19:00etan, Coliseon, eta country, folk, blue grass eta rock&roll doinuak ekarriko dizkigu. Txikitatik jaso du musikarekiko pasioa. Texas, Kalifornia, Oklahoma eta Appalachian hezia, AEB-ren barrenera bidaiatzen du bere musikak.

Elkarriketa osoa



Nola deskribatuko zenuke Martha Fields Bandak orain arte egindako ibilbidea, bai musikalki eta pertsonalki?

Txikitan hasi nintzen jolasean eta kantuan, amarekin eta beste senide batzuekin. Nerabe nintzela hasi nintzen abestiak egiten. Texasen, Kalifornian, Oklahoman eta Appalachian jo nuen eta duela 12 bat urte Frantzian udako jaialdi batzuetan jotzera gonbidatu ninduten. Gauzak aurrera joan ahala, European gero eta denbora gehiago pasatzen hasi nintzen. Beraz, orain, urtearen zati bat Frantzian bizi naiz. Azken hamar urteetan talde berarekin jo dut. Esperientzia zoragarria izan da nire kulturaren zati hau eta nire musikaren ondarea Europa osoan ikusleekin partekatzea.

Zure musikak country, folk eta amerikar doinuak nahasten ditu. Nola definitzen duzu zure ahotsa?

Nire soinua ‘ni’ naiz. Hau da, niri gustatzen zaidana. Folk musikarekin, bluegrassarekin, gospelarekin hezi ninduten, eta noski, rock’n’rollaren eta bluesaren eragina ere izan nuen. Errepertorio gehiena idazten dut eta abestiak oso pertsonalak dira niretzat, nire bizipenetatik edo familiaren bizipenetatik. Genero anitz jotzea gustatzen zait eta orain nolabait ‘americana’ kategorian jarria da, baina beti kokatu izan naute estilo horietan.

Zeintzuk izan ziren zure eragin musikal handienak hasi zinenean? Denborarekin aldatu egin dira?

Noski, hasieran nire familia izan zen. Nire osaba-izeba handietako bat Nashvilleko country blues/boogiearen lehen sortzaileetako bat izan zen 1940/50eko hamarkadan. Eragin handia izan zuen nigan, eta abesti bat idatzi diot azken diskoan (Bramble Bridge). Nire lehen oroitzapena amaren magalean abestea izan zen, eta gaztaroaren zati handi bat harekin jolasean pasatu nuen. Honky tonk eta country musika zahar asko entzuten nuen (Hank Williams eta abar), baina baita Patsy Cline, Loretta Lynn, Willie Nelson, Johnny Cash, Ray Charles eta geroago Linda Rondstadt, The Eagles & Emmylou Harris ere nerabe nintzela. Orain, Rosanne Cash, Lucinda Williams, Keb Mo eta Red Dirt-en musika entzuteko joera handiagoa dut.

European sarritan aritu izan zara. Zerk erakartzen zaitu hemen hainbestetan jokatzek?

Nahiko harrituta geratu nintzen Europara etortzen hasi nintzenean musika horrek hain harrera ona izan zuela hemen. Ikusleak, aretoak eta European zehar bidaiatzea maite ditut gure ikuskizunetarako. Hainbeste zale, antolatzaile eta lagun zoragarri ezagutu ditut biran ibili naizenean... Americana eta country jaialdi



AEB-ko sustraiaietatik edaten du Martha Fieldsek. BENHOUDIJK

mordoa dago eta baita americana musika ardatz duten klubak ere eta, beraz, nahiko lanpetuta gabiltza.

Aurretik Euskal Herrian jo izan duzu? Hala bada, zer oroitzapen duzu kontzertu haietatik?

Behin baino gehiagotan jo dut Donostian Club 44ean, eta ikusle horiek beti izan dira benetan zoragarriak. Jendeak benetan entzuten du eta kontzertuan parte hartzea ere asko gustatzen zaio. Nire musika-oroitzapen gogokoenetako batzuk Donostian jotako kontzertuenak dira, eta, jakina, izugarri gustatzen zaizkit eskualdea, haren historia, arkitektura, ingurune naturala eta janaria! Ez dakit inoiz jan izan dudan hobeto. Baionan ere jo dut eta berriz ere audientziak nahiko bereziak izan dira. Zorionez, bi tokietara itzulteko eskatu didate.

Zerk bereizten ditu Europako ikusleak AEBetakoetatik, izatekotan?

Uste dut hemengo publikoa errespetutsuagoa dela, adeitsuagoa. Agian musika ezohikoagoa izan daitekeelako Europako audientzientzat baina, oro har, Europako publikoak benetan entzuten duela irudit

“Oso musikari emozionalak gara, eta gure helburua da ikusleekin emozio sorta oso bat partekatzea, eta ikusleek tarte atsegin bat izango dutelakoan gaude”

zait, eta, gainera, honi buruz berba egin nahi dutela ikuskizunen ondoren.

Zer espero dezakete Eibarko ikusleek urriaren 12an egingo duzuen emanaldiaz?

Bidaia musikal bat egingo dugu musika amerikarraren espektroan zehar. Europako musikari finenetakoak ditut dobroan, banjoan, gitarran, biolinan eta abarretan. Oso musikari emozionalak gara, eta gure helburua da ikusleekin emozio sorta oso bat partekatzea, eta ikusleek tarte atsegin bat izango dutelakoan gaude. Lagun berriak egiteko gogoz nago, eta espero dut ikuskizunaren eta solasaldiaren ondoren ni ikustera etortzea.

“Pertsonaiek eta haien bizipenek erabat erakarri ninduten”

ASIER ALTUNA • ‘Karmele’ filmaren zuzendaria

Kirmen Uriberen ‘Elkarrekin esnatzeko ordua’ eleberrian oinarrituta dago ‘Karmele’ filma eta Jone Laspiur, Eneko Sagardoi, Nagore Aranburu eta Javier Barandiaran aktoreak ditu protagonista. Bihar izango da Jone Laspiur filma aurkezten, Coliseo antzokian.



Asier Altunak ibilbide sendoa du Donostiako Zinemaldian, eta aurten ‘Karmele’ filmarekin itzuli da Sail Ofizialera. Kirmen Uriberen ‘Elkarrekin esnatzeko ordua’ nobelan oinarrituta, Karmele Urresti eta Txomin Letamendiren istorioa kontatzen du: erbestean maitemindu ziren bikote euskaldunarena, bizitza osoan konpromiso politikoari eutsitako bikotearena. Memoriaz, emakumearen indarraz eta historiaren garrantziaz mintzatu zaigu Altuna.

Aste honetan areto askotan izango duzue estreinaldia, ezta?

Bai. ‘Karmele’ filmaren 117 kopia egin ditugu. Horrek esan nahi du 117 zinema aretotan erakutsiko dugula pelikula aldi berean Euskal Herrian eta baita espainiar estatuan ere. Oso pozik gaude. Herritarrei filma erakusteko gogoia dugu. Gainera, zinema aretoetan ikusi eta gozatzekoa dela uste dugu, elementu asko dituelako bai musika aldetik bai irudi aldetik. Eta, noski, historia bera ederra da.

Modu berean, Jone Laspiur (Karmele) Coliseon izango da bihar, zapatua, filma aurkezten. Familia

eibartarra du eta filmaren grabaketetan geundela askotan aipatu ditu bere aitona-amonak edo izeba-osabak. Pertsonaia sortzerako orduan erreferentzia moduan izan ditu. Aitonaren arreba bat, esaterako, herriko ikastolaren sortzaileetako bat izan zen, eus-kalgintzan oso sartua. Gaur egun 100 urte dituela esango nuke. Beraz, bai, ilusio handiarekin izango da Coliseon.

Zergatik hautatu zenuen Elkarrekin esnatzeko ordua eleberria film gisa egokitzeke?

Ez nuen imajinatzen ere sekula garaiko film bat egingo nukeenik, oso konplikaturik delako eta ez nuelako inongo beharrik edo atzera begira jartzeko. Baina, Ondarroako ‘Marabilli’ sormen festibalean Kirmen Uriberen bitartez familia honen historiaren zati baten berri izan nuen. Momentu hartan Uribek eleberria idazten zebilela esan zidan. Aurrerago, eleberria irakurri eta elementu zinematografiko ugari zeudela konturatu nintzen: bi gerrate, Francoren soldaduek etxetik bota izana, Frantziaren erbesteratzea, bigarren erbesteratzea Caracasen, Agirre lehendakariaren garaian erresistentzian parte hartzea... Oso historia gordina, gogorra eta berezia zela iruditu zitzaidan. Bestalde,



Jone Laspiur Coliseon egongo da bihar, zapatua, filma aurkezten.

gehien erakarri ninduen pertsonaiak izan ziren.

Karmele bera, 20 urterekin frontean izan zen erizain bezala; gero, haren gurasoak, Iparraldera erbesteratu ziren bera frontean gelditu zen bitartean... Erabaki potoloak hartu zituen. Karmeleren gurasoak ere pertsona oso interesanteak izan ziren, konprometitua eta aktiboak. Aita arrantzalea zuen, bere atunontziari sua eman ziona frankistek gerraostean ez ziotelako arrantza egitera joaten uzten. Ama ere emakume oso potentea zuen, ikastolako maistra zen, garaian zeuden aldaketekin oso konprometitua, Ondarroako emakume taldeko burua zen. Aldaketen garaia bizi izan zuten: emakumeen bozka emateko eskubidea, aldaketak hezkuntzan, euskarazko lehen testu liburuak argitaratu ziren... Horren alde asko egin zuen emakume honek.

Beste aldetik, Txomin Letamendi dugu. Tronpetista bertuosoa zen, oso gaztetatik jo zuen Bilboko Orkestra sinfonikoan, 25 urte zituela Ameriketako Estatu Batuetara musika jotzera joan zen lagunekin... Abenturazale amorratua zen. Gerra garaian gudarien kapitain izan zen, erbestean Frantzia Agirrerren ondoan izan

zen Francoren estatu kolpea salatzeke ekintzetan... Tipo oso konprometitua izan zen, askatasunaren alde borroka handia egin zuena.

Filmak exilioa, gerra eta identitatearen gaiak ukitzen ditu. Gaur egungo testuinguruan lantzea beharrezkoak diren gaiak direla uste duzu?

Zoritxarrez pil-pilean dauden gaiak dira. Faxismoa gero eta gertuago sumatzen dugu. Atzeraka goazela ematen du, totalitarismoa eta askatasunaren kontrako ideiak dira nagusi. Pena ematen dit gaur egungo egoeran horrelako pelikula bat egungo testuinguruaren erreferentzia bilakatzea. Gogorra delako. Uste dut Karmeleren historia ez dagoela hain urruti, horren erakusle da haren bi seme bizirik daudela. Berriro ere garai haietan Euskal Herrian bizitako kolonialismo, totalitarismo eta gerra hotsetara itzultzeak beldurra ematen du. Aldi berean, Karmele kulturaren eta hezkuntzan pentsatu ohi zuen emakumea zen, memoriarekiko kontzientziaduna. Hurrengo belaunaldiak kontzientzia hori jaso zezaten nahiko luke, filma memoria ariketa bat izan dadila. Horrenbestez, bereziki gazteek ikusi beharko luketen filma dela uste dut.



“Carmen” operaren proiektzioa eskainiko dute gaur Coliseon

Gaur arratsaldean operaz gozatzeko aukera egongo da Coliseo antzokian, 19:30ean hasiko den proiektzioari esker. Georges Bizeten *Carmen* eskainiko dute, Versailles-en (Frantzia) grabatutako kontzertuan. Opera ezagunaren 150. urteurrena eta Georges Bizet egilearen heriotza gogoratzeko, jatorrizko ekoizpenaren pareko ikuskizuna sortu nahi izan dute eta, horretarako, Christian Lacroix-ek diseinatutako jantziak eta Frantziako Liburutegi Nazionalen berreskuratutako dokumentuetan oinarritutako eszenografia erabili dituzte, besteak beste. Sarrerak 9 euro balio du (5,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).



Jokin Azpiauren liburua, bigarren edizio zabalduan

Jokin Azpiazu Carballo soziologoak *Masculinidades y Feminismo* liburuaren azken edizio zabaldua aurkeztuko du Andretxean, datorren egunean (urriak 16), 18:00etatik aurrera. Berrargitalpen zabaldu honetan, Mari Luz Estebanen prologoarekin, testu berri bat sartu du egileak: bertan, liburuak eragindako eztabaidak errepasatzeaz gain, praktika erradikalak eta eraldatzaileak ekarri beharko lituzketen eztabaida garaikideak aipatzen dira.



Lendakaris Muertos eta Modus Operandi Amañan

Euriaren eraginez uztailan, Amañako jaietan, bertan behera laga behar izan zituzten kontzertuak bihar izango dira. Horrela, 22:30etik aurrera Lendakaris Muertos eta Modus Operandi taldeak arituko dira auzoan. Biharkoa Lendakaris Muertos zuzenean ikusteko azken aukeretakoa izango da, gainera, egiten ari diren bira amaitu eta atsedean hartzeko asmoa dutela iragarri dute eta. Kontzertuen aitzakiarekin, egun osorako jai-egitaraua prestatu dute Amañako Jai Batzordeak eta Amañako Gazte Asanbladak elkarlanean. Azaldu dutenez, egun osoan zehar musika eta bestelako ekintzak egongo dira. Egitaraua eguerdian, txupinazoarekin hasiko da. Jarraian poteo girotua egingo da, auzoko tabernetan, eta ondoren bazkaria egingo dute, bingo eta guzti. Eta arratsalderako, berriz, txokolate-jana eta DJ Hombre Orquestak girotutako arratsalde pasa antolatu dituzte, gauean kontzertuak hasi bitartean inor ez aspertzeko.

“Toponimia eusquerica en el mundo” liburuaren aurkezpena

Martitzenean, urriaren 14an aurkeztuko dute Jose Mari Ugaldea Duralderen *Toponimia eusquerica en el mundo* liburuak, 19:00etan Portalean (ikastaro gelan). Irakurlea hausnarketara bultzatzeko asmoz, orain arte euskararen historiari buruz ezagutzen dena alda dezaketen datu berriak proposatzen ditu egileak liburu honetan. Abiapuntua Theo Vennemann hizkuntzalari alemaniarren teoria da, zeinaren arabera, orain dela 10.000 urte inguru Mendebaldeko, Erdialdeko eta Iparraldeko Europa osoa baskonikoa zen.





Oskar Gaskonek irabazi du Indalecio Ojanguren lehiaketako ohorezko saria

Zapatuan bildu zen Indalecio Ojanguren XXXVII. Argazki Lehiaketako epaimahaia, edizio honetako sari-dunak aukeratzeko, eta Indalecio Ojanguren Ohorezko Saria argazki bilduma onenari Oskar Gaskon Marañoñ irundarrari ematea erabaki zuten Iñaki M^a Delgado, Manu Barreiro eta Fernando Anza epaimahaikideek. Indalecio Ojanguren Sariak, berriz, honako hauentzat izan dira: Oskar Manso Navas (Gasteiz), Javier Arceñillas (Alcobendas), Manuel Gallart Pablo (Montcada i Reixac) eta Jose Lopez Gimenez (Sax). Euskal Herri mailako sariak, berriz, Jose Agustin Gurrutxagak, Aitor Arana Arrutik eta Andres Indurain Gutierrezek irabazi dituzte. Eta Eibarko saridunak Juan Antonio Palacios, Oscar Baglieto eta Einer Rodriguez Ponce-dira. Amaitzeko, 8-16 urte bitarteko parte-hartzaileen artean, Nerea Solana Dominguez eibartarraren lana saritu dute. Sariak banatzeko ekitaldia Portalean erakusketa zabaltzearekin batera izango da, datorren barixakuan (urriak 24), 19:00etan.

Sanandresetarako bilera irekia

Jaixak Herrixak Herrixan-dako jai-batzordeak bilera irekia antolatu du gaurko, aurtengo sanandresak prestatzen hasteko. San Andres jaietara begira egingo den lehen bilera izango da, eta programa osatzen lagundu nahi duten guztiei bertara agertzeko deia egin dute. Txaltxa Zelaiko eszenatokian izango da bilera, 19:00etan.



Pagatxaren zine-forum eta bideo-forum saioak bueltan

Udako atsedenaldia amaituta, gaur izango du lehen saioa Pagatxa emakume elkarteak antolatzen duen bideo-forum feministak. Angelina Jolie idatzi eta zuzendu duen *Frente al mar* filma proiektatuko dute, 18:30ean Portaleko areto nagusian eta, jarraian, solasaldia egingo da. Eta martitzenean *Emakumeen Istorioak* bideo-forum saioa egingo da, 17:30ean Andretxean. Orin O'Brien kontrabaxu-jotzaile estatubatuarra izango da protagonista. Leonard Bernsteinen zuzendaritzapean, 1966an New Yorkeko Orkestra Filarmonikora batu zen lehen emakumea izan zen bera. Betiko moduan, parte-hartzea librea eta dohainik izango da.



Martitzenean aurkeztuko dute “Txillarreko sukaldaria”

Datorren astean aurkeztuko dituzte Eibarren *Txillarreko sukaldaria*. Pello Rubiori *elkarriketa* liburua eta dokumentala egileek, Asier Ibaibarriagak eta Edurne San Martinek: martitzenean, 18:30ean izango da ekitaldia, Portaleko areto nagusian. Hogei urte igaro dira Jesus Egiguren (PSE-EE) eta Arnaldo Otegi (Herri Batasuna) lagunak Elgoibarko Txillarre baserrira gonbidatu zituenetik, eta kaleratu berri duten lanean Pello Rubioren orduko bizipenak jaso dituzte.

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

				3	4	2		
1		6				7		
				9				6
	8							1
		3	2		7	5		
4							7	
3				7				
		9				6		8
		4	9	8				

7	5	1	0	0	6	7	2	6
0	0	9	2	7	1	6	7	5
6	2	4	2	9	7	5	8	1
2	7	2	6	8	9	0	1	5
4	5	8	5	7	2	2	0	9
1	9	0	6	5	9	4	2	7
9	4	4	1	6	7	5	8	1
3	6	3	8	8	9	9	9	9
1	4	7	6	2	5	7	3	6
5	2	1	5	4	2	1	5	8


S
u
d
o
k
u
a

8	6	7	6	9	3	4	2	1	5
2	7	1	4	0	6	7	2	6	0
2	9	5	6	7	8	1	6	7	5
1	4	1	8	2	3	7	4	1	5
8	5	5	5	3	9	9	6	6	0
7	1	9	4	8	8	2	2	0	6
6	8	0	3	7	1	7	7	5	9
4	5	2	6	9	6	3	6	9	9
7	2	3	4	5	1	5	1	8	2
9	6	8	1	5	1	8	7	1	5
3	0	3	4	2	4	7	7	1	2
1	2	5	8	0	3	7	6	9	4

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

4		9		3			2	
5						4		
					1			
1				9			5	
6	5		2		7		8	9
	3			8				7
			6					
		1						2
	7			4		9		8

Topatu hiru banana



Urriak 10 / Urriak 17

BARIXAKUA 10

BARIXAKUAK JOLASIAN

17:00/18:00 2 eta 8 urte bitarteko haurrentzako jolasak ...eta kitto! Euskara Elkar-teak antolatuta. Dohainik. Urkizuko parkea.

HITZALDI-DASTAKETA

18:00 Tomateari buruzko hitzaldi-dastaketa. Arrate Kultur Elkarte.

ZINE-FORUMA

18:30 "Frente al mar" (Zuzendaria: Angelina Jolie). Zine-forum feminista, Pagatxa emakume elkar-teak antolatuta. Dohainik. Portalea.

BILERA IREKIA


19:00 Sanandresak prestatzeko. Jaixak Herrixak Herrixandakok deituta. Txaltxa Zelai (eszenatokia).

OPERA PROIEKZIOA

19:30 Georges Bizeten "Carmen". Chateau de Versailles-en grabatutako kontzertua. 9 euro (5,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

KOMEDIA FEST

20:30 Sara Escudero: "Tiempo al tiempo?". 22 euro. Uni Eibar-Ermua.



ZAPATUA 11

AZOKA

10:00/14:30 Kontsumo Arduratsu eta Ekologikoaren III. Azoka. **11:30** Haurrentzako tailerra, EkoOiz-en eskutik. **12:00** "Ekoizpen duina, kontsumo arduratsua" EKOerrezetak, Miriam Chefintegrativaren eskutik. Sagardo-dastaketa Lizagarraren eskutik. **14:15** Kartel Lehiaketaren VII. edizioko sari-banaketa. **14:30** Produktu-saskien zozketa eta azokaren amaiera. Untzaga.



AMAÑAKO GAZTE EGUNA

12:00 Txupinazoa. **12:30** Poteo girotua. **15:00** Bazkaria + Bingoa. **17:30** Txokolatjana. **19:00** Tardeo, DJ Hombre Orquesta-rekin. **22:30** Kontzertuak: Lendakaris Muertos eta Modus Operandi. Amaña.

TXAKURRAK URETARA

11:00/18:00 Txakurrak Uretara! ekimena. Dohainik. Ipuruako igerilekua.

BISITA GIDATUA

17:00 Museoko erakusketa iraunkorrera bisita, doan (euskaraz) **18:30** Bisita bera, gaztelaraz. Aurretik izena eman behar da. Armagintzaren Museoa.

DOMEKA 12

MANIFESTAZIOA

12:00 "Stop genozidioa" manifestazioa. Eibar Pales-tinarekin deituta. Untzaga.



MUSIKA KLUBA

19:00 Martha Fields Band: "Southern white lies". 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

ASTELEHENA 13

KANTU-SAIOA

19:00 Euskal kanta tradizio-nalak" saio irekia. Arrate Kultur Elkarte.

MARTITZENA 14

AURKEZPENA

18:30 "Txillarreko sukaldaria. Pello Rubiori elkarriketa", Asier Ibaibarriagak eta Edurne San Martinek egindako liburu eta dokumentalaren aurkezpena. Portalea (areto nagusia).

LIBURU AURKEZPENA

19:00 "Toponimia eusquerica en el mundo" Jose Mari Ugaldea Duralderen liburuaren aurkezpena. Portalea (ikastaro gela).

ENTSEGUA

18:30/19:30 Koralito abesbatza. Ipuruako Merkatu Plaza.

EGUAZTENA 15

AGURTZEN

18:00/20:00 Aurretiazko borondatei buruzko informazio-zerbitzua, Ikasten-en eskutik. Untzaga gizarte etxea (Arrate aretoa).

PROIEKZIOA

19:00 "The Phoenix of Gaza", Yousef Alhelou palestinarren film-dokumentala. Ingelese, euskarazko azpititluekin. Coliseo.

EGUENA 16

LIBURU AURKEZPENA

18:00 "Masculinidades y Feminismo" (2. edizio zabaldua), Jokin Azpiazu Carballoren liburuaren aurkezpena. Andretxea.

HITZALDIA

19:00 "Martin Lopez de Isasi: jatorria, ibilbidea eta ondarea Eibarko eremuan", Javier Elorza eta Jose Antonio Azpiazu historialarien eskutik. Euskaraz. Ego Ibarrrak antolatuta. Markeskua.

PROIEKZIOA

19:00 "The Phoenix of Gaza", Yousef Alhelou palestinarren film-dokumentala. Ingelese, gaztelarazko azpititluekin. Coliseo.

ERAKUSKETAK

Urriaren 12ra arte

Arrate Kultur Elkarteko bazkideen erakusketa. Topaleku.

Urriaren 19ra arte

"Eskala eta zatiak" (Javier Balda) eta "Asmodun elementuak" (Ibon Aranberri). Portalea.

ZINEA COLISEO



"Maspalomas"
DRAMA
2025/Euskal Herria/115'
Zuzendaria: Jose Mari Goenaga, Aitor Arregi
Aktoreak: Jose ramón Soroiz, Nagore Aranburu, Kando Uranga, Zorion Eguileor
Zahartzaroa/Heldutasuna. Homosexualitatea

1 ARETOA
• **11an**: 19:45, 22:30 (VOSE)
• **13an**: 19:30 (VOSE)



"KarmeLe"
DRAMA. ERROMANTZEA
2025/Euskal Herria/114'
Zuzendaria: Asier Altuna
Aktoreak: Jone Laspiur, Eneko Sagardoy, Nagore Aranburu, Javier Barandiaran
30eko hamarkada. Espainiako Gerra Zibila. Musika

1 ARETOA
• **11an**: 17:00
• **12an**: 17:00, 20:00

ANTZOKIA
• **11an**: 19:45, 22:30
• **13an**: 19:30



"Ya no quedan junglas"
THRILLER. DRAMA
2025/Espainia/89'
Zuzendaria: Luis Gabriel Beristáin
Aktoreak: Ron Perlman, Megan Montaner, Hovik Keuchkerian, Damián Alcázar
Mendekua

2 ARETOA
• **11an**: 17:00, 19:45, 22:30
• **12an**: 20:00
• **13an**: 19:30



"Sablehortz kapitaina eta Greleko kondesa"
ANIMAZIOA. KOMEDIA.
2025/Norvegia/77'
Zuzendaria: Are Austnes, Yaprak Morali, Rasmus A. Sivertsen
Piratak

ANTZOKIA
• **11an**: 17:00

2 ARETOA
• **12an**: 17:00

Timotea Zubizarreta Barrena

5. URTEURRENA
2020/10/07



"Beti gure bihotzean"
- ZURE FAMILIA -



MARITXU Gantxegi 2019/01/12
TERE Gantxegi 2020/10/15



BETIRAKO GURE BIHOTZETAN
- ETXEOAK -

943 20 67 76

aldizkaria@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak **IZEI**
Aranberri
Zubizarreta!,
10 urte egin
dittuzu! Segi hain
alai eta jator, mutil
haundi!



Zorionak **NAHIA!**
8 urte betetzen
dittuzu, neska
haundi. Musu
potolo bat danon
partez. Danel,
amak eta aitak asko
maitte zaittugu.



Zorionak **OIER!**
3 urte haundi bete
dozuz! Jarraitu
poztasun horrekin,
beti alai. Musu
haundi bat etxeko
guztion partez



Zorionak **KALA!**
Urrian 12xan
4 urte!!! Zorionak
bihotza! Asko asko
maitte zaittugu!
Etxeko danak



Zorionak **ANE!**
Joan den irailaren
15ian bostgarren
urtia bete zenduan
eta!!! Musu asko,
batez be aitxitxa
eta amamaren
partez!



Zorionak **SARA!**
3 urte egiten dittu
hillaren 15ian.
Patxoak amama,
Maria, amatxo ta
aitatxoren partez.
Asko maite zaitugu!



**Agustin Olabarria
Aranburu "Otolá"**

1. URTEURRENA
2024/10/09

Maitarzün berriari
ilargiak dü argi,
emanen deikü aski,
gük elgar maita
dezagün beti.

- ZURE FAMILIA -



**Maria Jose Errasti
Barrenechea**

1. URTEURRENA
2024/10/10

Zure argia ez da itzali,
lekuz aldatu besterik
ez. Urtebete igaro da
fisikoki utzi gintuzunetik,
baina zure barre, aholku
eta besarkada bakoitza
daramagu barrenean.

- ZURE FAMILIA -



Iragarki laburrak



943 20 67 76
aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa
2. MOTORRA
2.1. Salgai
3. LOKALAK
3.1. Salgai
3.2. Errentan
4. LANA
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila
5. IRAKASKUNTZA
5.1. Eskerak
5.2. Eskaintzak
6. DENETARIK
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.2. Errentan

- Donostia erdialdean bi loge-lako apartamentua negurako alokairuan. Altzariz jantzita. Rosa M^o. 653 733 457.

3. LOKALAK

3.1. Salgai

- Garaje itxia salgai San Pion. 25 m². Prezioa adosteko. 688 84 72 37 / 656 75 64 70.
- Elikagai-denda traspasatzen da Urki auzoan, gaixotasunagatik ezin baita atenditu. 30 urte daramatza dendak auzoan eta erreformatuta dago, hasteko moduan. 655026699.
- 100-200 metro karratu inguruko lokala erosiko nuke. Salneurri merkekoa izatea beharrezkoa da. Karga-deskarga erreza, eguneko argia edo lokalizazioa baloratuko dira. 665732640. Aitor.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko edota ume, zein nagusiak zaintzeko. 632 76 86 53.
- Gizonezkoa eskaintzen da zerbitzari lanetarako, garbiketak egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko. 632049330.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. 641149871.
- Emakumea eskaintzen da pertsona nagusiak pasiatzeko. 617 57 12 10.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko,

09:30etik aurrera. Tel 602 800 266.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Aste-buruetan, orduka, gauez... 631425686.
- Neska eskaintzen da goizez umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketa-lanak egiteko. 627 69 71 42.
- Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko, etxean edo ospitalean. 643464307.
- Garbiketa lanak edo nagusien zaintza egiteko prest nago. Arratsaldetan. 620757528. Arrate.
- Gizona eskaintzen da edozein lan mota burutzeko: obrak, tabernak, segurtasuna... Edozein lan motarako prest. 617618764.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Ziurtagiriarekin. 642757640.
- Emakumea eskaintzen da persona nagusiak zaintzeko, tabernako zerbitzari eta etxeko garbiketa egiteko prest. 660140707.

4.2. Langile bila

- Eibarko erdigunean dagoen ileapaindegirako, eskarmen-tudun estetizista behar da. Lan giro ona. 678 67 42 50.
- Elektrohigadurazko mekanizazio makinan lan egiteko langile bat behar dugu. Gutxienez 3 urteko esperientziarekin. 661326127.
- Zerbitzaria behar da asteburuetarako Kultu tabernan. Euskaraz jakitea baloratuko da. 943208439. Aitor.

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- Gitarra, baxu elektrikoa eta ukelele klaseak. Armonia eta konposizioa. Musikene-ko irakasle tituluduna. basseak@yahoo.es 652217737.LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.4. Bestelakoak

- Pilates irakaslea eskaintzen da norberaren etxera joan eta klase pribatuak emateko. Gehienez bi ikasle klase bakoitzeko. Adin guztiak eta maila guztiak. 685724192.
- Bigarren eskuko bizikleta estatikoa erosiko nuke. 696 39 55 10.

PLASTIKO MAGIKOA



Sormena formatu berrietan esploratzeko aukera paregabea. Plastiko berezi batean marrazki eta mezu pertsonalizatuak sortuko dira, gero giltzatako, belarritako... bihurtzeko beroaren laguntzaz, era erraz eta dibertigarrian.

URRIAK 28

18:30

...eta kitto! Euskara Elkartean

943 200 918

elkartea@etakitto.eus



7€
pertsonako

5€
bazkideak

Izen-ematea zabalik urriaren 3tik 22ra | +12 urte (umea heldu batek lagunduta)

HURRENGO IKASTAROAK...

Azaroak 18

**EUSKAL
HERRIKO
GAZTAGILEAK**



Abenduak 11

**KANDELA
IKASTAROA**





IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizenziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian,
Periodontizian, implantologian,
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian,
Bartzelonako Unibertsitatean,
Hortz-Estetikari Diplomatua,
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean,
Hortz-Estetikari Diplomatua,
Autran Institutua, Bartzelona,
Etengabeko Formakuntza,
New York-eko Unibertsitatea,
Oklusioan Graduondoa,
Anibal Alonso Doktorea.

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

Facebooken: Clínica Dental Irazabal **www.clinicairazabal.com**



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - **www.clinicairazabal.com**